

C1 MAILA

Mintzamen-proba

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

- 1. ZATIA. **Gaia** garatu
- 2. ZATIA. Bat-bateko **elkarrizketa**

(5 minutu)

(5 minutu
azterketari
bakoitzak)

**Guztira 10 bat
minutu**

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.
Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

Publizitatea, iragarle

Leire Narbaiza



Sekula gauzatu ez dudan proiektu bat dut aspaldian buruan: arratsaldeko telebista-saioen etenetan ematen dituzten iragarkiak grabatu, eta ostean iruzkinak egin. Ziur naiz irudi terrible bat aterako litzaidakeela. Izan ere, iragarkiek urteko sasoiak adierazi ez ezik, modan eta bogan dagoena ere markatzen dute.

Proiektua egin bitartean, aspaldion ikusitakoekin konformatu behar. Poker, erruleta eta postura-etxeen iragarkiak nagusi dira. Diru erraz baten promesa, era ludiko eta errazean. Jokoaren plazera saldu, desplazera erakutsi barik. Jokatu ostean, badirudi etxea zaindu behar dela. Zorriak Lehen Hezkuntzako gela batean lez ugaritu dira segurtasun-enpresen spotak. Alarma sortu, alarmaz arma gaitezen, etxean gotortu, segurtasunaren izenean. Baina medikuntza-aseguruen iragarkiak zaizkit deigarrienak. Desagertuta zeuden ia, eta orain tsunamiaren olatua dirudite. Medikiak telefonoz artatuko gaituela dioskute gure asti ezaren arazoa konpontzeko! Kalitatea!

Iragarkiek etorkizuna iragartzen ei dute. Beldurra zabaldu, lapurretak normaldu, eta osasungintza pribatua izango dela anuntziatzen digute. Bihar-etzi lapur eta tratatu ezineko gaixoak baino ez da izango gurean. Etorkizun iluna.

Argia (moldatua)

144A

Gaia prestatzeko:

Zer dio egileak?

Zein ideia azpimarratuko zenuke? Zergatik?

Eman zure iritzia:

Zer deritzozu gai honi? Egileak aipatzen dituen arloetako publizitatea ugaritu dela uste duzu? Publizitatea gehiago mugatu behar dela uste duzu? Zergatik? Zergatik eragiten du hainbeste publizitateak gudan? Gogoan duzu zudan eragin zuen iragarkiren bat?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN